



Andoingo Udala



Jabekuntza Eskolan izena eman nahi? Prest dira udaberriko ikastaro eta lantegi sorta!

- **Ahalduntze prozesuen bidez, emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea du helburu eskola honek**
- **11 tailer eta lantegi eskainiko dira guztira, otsailean hasi eta ekainera bitarte**
- **Izen-ematea Berdintasun sailean egin ahal izango da, martxoaren 4tik aurrera**

Andoainen, 24-02-12.- Udaberri honek ere izango du Andoainen bere Jabekuntza eskolako eskaintza: Berdintasun Sailak onartu berria du datozen hilabeteetan eskainiko diren ikastaro eta lantegien eskaintza.

Guztira 11 ekintza antolatu dira udaberri honetarako, Andoingo eraikin eta puntu ezberdinetan eskainiko direnak.

Haizea Barandiaran Berdintasun zinegotziak gogoratu du” emakumeen ahalduntzerako eskolak” direla antolatzen direnak. Egungo jendaratean, oraindik ere, beharrezkoa da emakumeen parte hartze sozial eta politikoa sustatzea, eta horretarako, ezinbesteko ikusten dute emakumei tresna eta lanabesak emango dizkien dinamikak antolatzea.

Hala, antolatu diren ikastaro eta lantegien artean, emakumeak arlo emozionalean zaintzeaz gain, eguneroko bizitzarako lanabesak emango dizkien pautak ere antolatu dira. Barandiaranek Andoingo emakume guztiak animatu nahi ditu parte-har dezaten: “Emakumeon izaeraren autokontzientzia hartzea, autoestimua lantzea, gure gaitasun propioak ezagutzea eta emakumeoi dagokigun espazioa berreskuratzeko tresna ezinhobea da Jabekuntza Eskola”.

Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikariak, bere aldetik, ikastaroen nondik norakoak azaldu ditu. Alde batetik **hausnarketarako balioko duten lantegiak** egongo dira:

-‘Filosofia eta Feminismoa: Emakume filosofoak arrazoi patriarkalaren aurka’, Marisa Hurtadoren eskutik (Gaztelera)

-‘Arte Garaikidea eta Feminismoa’, Ainara Martinen eskutik (parte-hartzaileen arabera)

Sormenerako tartea ere izango da:

-‘Batukada feminista’, Botapa batukada (parte-hartzaileen arabera)

Zaintzarako tartea ere noski:



Andoaingo Udala



-Sexualitate kontzientea: beste emakume batzuk maite dituzten emakumeentzat', Bea Zalakain (Gaztelera)

-Autodefentsa feminista, Emagin (euskaraz)

-'Ginekologia naturala eta maitasunezkoa', Clara Gutierrez (gaztelaniaz)

-'Zaintzailentzako ongizate emozional eta autozainketa lantegiak', Saioa Garmendia (partehartzaileen arabera)

-'Jatorri anitzeko emakumeen elkargune multikulturala', Sorburu (gaztelaniaz)

Eta oinarrizko formakuntza jasotzeko aukera ere:

-'Oinarrizko Brikolajea', Carmen Melchor (Gaztelera)

-'Sendabelarrak', Kris Lizarraga, (partehartzaileen arabera)

Izen-ematea martxoaren 4an abiatuko da, eta ikastaro bakoitza hasi baino 7 egun lehenago itxiko da. Hauek dira izen-emateko bideak:

- Webgunea: jabekuntza.andoain.eus
- Berdintasun saila
- Telefonoa: 943 30 08 30 (luz. 380 – 397)
- Emaila: berdintasuna@andoain.eus
- ATARIA Herritarren Arreta Zerbitzua